

GAIXOTASUNEN AURREAN NOLA JOKATU ORIENTATZEKO



- GIDA -

Honen helburua guraso eta zaintzaileei gomendio batzuk ematea da. Horrela, haurrak etxean noiz geratu behar duen jakingo dugu. Hainbat sintoma eta seinalek zerbait ondo ez dabilela susmaraziko digute. Botika eman ostean sintomak desagertzeak ez du esan nahi infekzioa desagertu denik.

Zergatik geratu behar du etxean haurrak?

- Gaixorik dagoen umearen defentsak lanpetuta daude haren infekzioari aurre egiten; beraz, hura izango da lehena beste prozesu infekzioso bat hartzen. Beste haurrak kutsatu ditzake.
- Haurra hobeto dago etxean: nahi duenean deskantsatu dezake eta ez dauka zertan beste haurren erritmorik jarraitu.
- **Haurra gaixorik dagoenean eraman behar al dut ikastolara?** Galdera egin ordez, ondorengoa egingo balitz: gaixorik dagoen haurra etxean ala ikastolan zaindu behar da?, erantzunean ez genuke zalantzarik izango.





Haurra EZ DA eraman behar...

1.- Zentzuak hala esaten duenean

2.-Ikastolan eman ezin zaion zaintza behar duenean edo ikastolako ekintzetan egoki parte hartzeko moduan ez dagoenean.

3.-Besteak beste, honako sintoma hauek dituenen:

3.1.- Sukarra edo febrrikula.

3.2.- Arnas zailtasuna eta/edo ez tul iraunkorra (ez bada katarro arrunta).

3.3.- Suminkortasuna (negar kontsolaezina).

3.4.- Gorakoa, ageriko arrazorik gabe.

Sukarra alarma seinale da; agertzen denean, zerbait gertatzen den seinale da. Gehienetan, prozesu infekzioso arrunt bat izango da.

Baina, zelan definitzen da sukarra?

TENPERATURA NORMALA: 37 gradutaraino besapean

FEBRIKULA: 37 eta 38 gradu artea

SUKARRA: 38 gradutik gora





Haurra EGOERA HAUETAN EZ DA ikastolara eraman behar...

Hauetako gaixotasunen bat duenean:

- > *Beherakoa, odolaz edo mukiaz.*
- > *Konjuntibitis zornetsua (begiak gorri eta jarioa).*
- > *Infekzioa azalean (inpetigoa).*
- > *Exantemak (mantxak azalean), aftak eta eskarlatina.*
- > *Zorriak (tratamendu gabe).*
- > *Hazteria, astanafarrera, kukurruku-eztula, elgorria, hazizuriak, tuberkulosia, A hepatitis.*

Pediatrak edo zentzuak gomendatzen duen beste edozein egoeratan.





eta haurra NOIZ ITZULI daiteke berriz ikastolara?

Prozesu infektioso bakoitzak bere bilakaera dauka, baina arau orokor gisa honako hauek har daitezke:

Haurrak 24 ordu baino gehiago daramatzanean sintoma gabe edo gutxieneko sintomekin.

Pediatraren gana jo badugu, hark hartuko du erabakia.

Haurra ondo sentitu behar da. Guztiz sendatu gabe joaten bada eskolara, berriz gaixotzeko arrisku aukera handitu egiten da.

Dena dela, etxean egoteko epea gaixotasunak berak zehaztuko du edo, hala behar izanez gero, tratamenduak.





Hainbat infekziori aurre egiteko gida

Haurren osasunaren gorabeheraren bat izanez gero, zuen seme/alaba aztertzen duen pediatrik ezarriko du zein irizpide jarraitu behar duzuen.

Haurtzaroan gehien izaten diren sintomak

<i>SINTOMAK</i>	<i>JARRAIBIDEAK</i>
<i>Sukarra</i>	<i>Sintoma hauetakoren bat izanez gero, umea Ikastolara ez bidali haur beraren eta beste guztien onerako.</i>
<i>Botakak</i>	
<i>Beherakoak</i>	





Ikastolan adierazi behar diren eta pediateraren alta edo baimena eskatzen duten gaixotasunak

GAIXOTASUNAK	IKASTOLARI JAKINARAZI	PEDIATRAREN	
		ALTA	BAIMENA
Hepatitis	BAI	BAI	
Meningitisa	BAI	BAI	
Tuberkulosia	BAI	BAI	
Elgorria	BAI	BAI	
Errubeola	BAI	BAI	
Lepamina/paperak	BAI	BAI	
Kukurruku-eztula	BAI	BAI	
Salmonellosia	BAI	BAI	
Konjuntibitisa	BAI	BAI	
Faringitisa	BAI		BAI
Laringitisa	BAI		BAI
Amigdalitisa	BAI		BAI
Barizela	BAI		BAI
Eskarlatina	BAI		BAI
Zorriak	BAI		BAI
Azaleko infekzioa	BAI		BAI
Bizkarroiak	BAI		BAI
Ahoko infekzioa	BAI		BAI
Gastroenteritisa	BAI		BAI





Beste aholku batzuk

Zuek, gurasook, zeregin garrantzitsua betetzen duzue haurren ohitura egokiak sortarazterakoan. Beraz, ondorengoak kontuan izan:

- *Haurren eguneroko garbitasuna.*
- *Arroparen aldaketa sarri egitea.*
- *Astero azazkalak moztea, bai garbitasunagatik, bai hauren arteko zauriak ekiditeko.*





Istripuetan eta medikamentauk emateko orduan jarraitu beharreko protokoloa ikastolan

- 1. Istripuak adituen atentzia eskatuko balu, bulegotik familia edo arduradunei deituko litzaioke ikastolara etortzea eskatuz.*
Arazoa oso grabea balitz (konortea galdu; ikaslea jaiki edo mugitu ezin denean; ikaslea bere onetik kanpo dagoenean) zuzenean anbulantzia bat deituko litzateke.
Irakasleak gertatutakoa tutoreari komunikatuko dio jakinaren gainean egon dadin.
- 2. Guraso edo arduradunek ezingo balute berehala etorri, arloko irakasleak lagunduko lioke anbulatoriora ahal dela oinez joango liratekeelarik.*
Oinez joatea ezinezkoa denean, taxi-anbulantzia bat deituko da, hau da, irakasleok autoak erabiltzea ekidingo dugu.





Ikasleei sendagaiak ematerako orduan

- 1. Sendagilearen idatzizko aginduei jarraituz emango zaizkie beharrezko sendagaiak. Errezetarik gabeko sendagaiak emateko (homeopatia, naturopatia....) gurasoen idatzizko aginduei jarraituz emango zaizkie. (behen agertzen dena).**
- 2. Ikasleek buruko mina edo hilekoarengatik tripako mina, edo horrelakorik balute, Paracetamol edo Saldeva emango diegu, beti ere lehen ere hartu dutela eta kalterik egin ez diela ziurtatuz. Ezingo zaie inolaz ere azido azetilsalizilikoa (aspirina) eman ez eta sendagai gogorragoak ere.**





Gurasoek sinatu beharreko baimena medikamentuak emateko orduan

Ni ikaslearen guraso bezala ,

Baimena ematen diot irakasle tutoreari edo behar den arduradunari , ikasleak behar

duenean (.....) ondoren azaltzen den

medikamentua eman diezaion.

(Sinadura)

